

OINARRIZKO LEHEN SOROSPENAK, CASTEJONGO UDALAREKIN BATERA

Nork emana: Nafarroako Gurutze Gorria.
Nori zuzendua: 18-30 urteko gazteentzat (aipatu urtekoak barne).
Helburuak orokorrak: larrialdi batean zer egin behar den ikastea.
Edukia/Programa: sorospena. Esku-hartzearen oinarriak. Oinarrizko bizi-euskarria. Larrialdi traumatikoak. Beste larrialdi batzuk.
Data: zehazteko dago.
Tokia: Castejon.
Ikasle kop.: 20 plaza.

BIDEOKLIP TAILERRA. IJITOEK IDAZKARITZAREN FUNDAZIOAREKIN BATERA

Nork emana: Arena Comunicación Audiovisual.
Data: zehazteko dago.
Nori zuzendua: interesa duten gazteak.
Programa: sarrera ikus-entzunezkoen mintzairari, sormena eta gidoia, errealizazioa, kameraren ikasketa teknikoak, ediziorako jarraibideak. Praktika: BIDEOKLIPAREN FILMAKETA.
Tokia: Iruñeko IDF. (Marcelo Celayeta, 75, B 2 A nabea, 51. bulegoa)
Prezioa: dohanik.

HASTAPENA AISIALDIKO BOLUNTARIOTZAN, ERRIBERRIKO ESKUALDEKO OGZEKIN BATERA

Nork emana: Urtxintxa AE.
Nori zuzendua: Erriberriko gazteak.
Helburuak: gazteei astialdiko hezkuntzaren arloko oinarriko ikasgai batzuk ematea. Boluntario arduratsuek prestatzea. Balio etikoak lantzea astialdian. Bakoitzaren jarrerak eta gaitasunak garatzea. Parte-hartzaileei baliabideak ematea hurrekin lan egiteko. Lizarran gazteen parte-hartzea bultzatzea.
Edukia/Programa: astialdian hezteko. Monitorearen profila. Boluntario izateko motibazioa. Talde dinamikak. Garapenerako hezkuntza. Elkartegintza. Jokoak eta lantegiak. Programazioaren hastapenak. Sentsibilizazioa naturarekin eta ingurunearekin.
Data: urriko larunbatetan emanen da ikastaroa: 2, 9, 16, 23 eta 30ean.
Ordutegia: goiz eta arratsalde.
Tokia: Erriberri.
Ikasle kop.: gutxienez 15 eta gehienez 20.

BOLUNTARIOTZAKO HASMENTA, CORELLAKO UDALAREKIN BATERA

Nork emana: Saioa AE.
Nori zuzendua: Corellako gazteak.
Helburuak: gazteei astialdiko hezkuntzaren arloko oinarriko ikasgai batzuk ematea. Boluntario arduratsuek prestatzea. Balio etikoak lantzea astialdian. Bakoitzaren jarrerak eta gaitasunak garatzea. Parte-hartzaileei baliabideak ematea hurrekin lan egiteko. Corellan gazteen parte-hartzea bultzatzea.
Edukia/Programa: astialdian hezteko. Monitorearen profila. Boluntario izateko motibazioa. Talde dinamikak. Garapenerako hezkuntza. Elkartegintza. Jokoak eta lantegiak. Programazioaren hastapenak. Sentsibilizazioa naturarekin eta ingurunearekin.
Data: larunbatetan, zehaztu gabe.
Ordutegia: goiz eta arratsalde.
Tokia: Corella.
Ikasle kop.: gutxienez 15 eta gehienez 20.

BOLUNTARIOTZAKO HASMENTA, AZKOIENGO ESKUALDEAN

Nork emana: Urtxintxa AE.
Nori zuzendua: Azkoiengo gazteak.
Helburuak: gazteei astialdiko hezkuntzaren arloko oinarriko ikasgai batzuk ematea. Boluntario arduratsuek prestatzea. Balio etikoak lantzea astialdian. Bakoitzaren jarrerak eta gaitasunak garatzea. Parte-hartzaileei baliabideak ematea hurrekin lan egiteko. Azkoien gazteen parte-hartzea bultzatzea.

Edukia/Programa: astialdian hezteko. Monitorearen profila. Boluntario izateko motibazioa. Talde dinamikak. Garapenerako hezkuntza. Elkartegintza. Jokoak eta lantegiak. Programazioaren hastapenak. Sentsibilizazioa naturarekin eta ingurunearekin.
Data: larunbatetan, zehaztu gabe.
Ordutegia: goiz eta arratsalde.
Tokia: Azkoien.
Ikasle kop.: gutxienez 15 eta gehienez 20.

DANTZA ETA KOREOGRAFIA LANTEGIA, LODOSAKO ESKUALDEKO OGZEKIN BATERA

Nork emana: Susana Alayeto Resano.
Nori zuzendua: Lodosako "Pablo Sarasate" Bilko gazteak.
Helburuak: gazteak aisialdi osasungarrian hezteko jarduerak eta eremua eskaintzea. Gazteek dantza klaseak ezagutzea eta gozatea, eta koreografiak egiten ikastea.
Data: 2010eko urria, azaroa eta abendua.
Ordutegia: ostirala, 18:00-19:00.
Tokia: Lodosako Kultur Etxea.
Ikasle kop.: 12.

ASTIALDIKO BOLUNTARIOTZAKO HASMENTA, LIZARRAKO UDALAREKIN

Nork emana: Urtxintxa AE.
Nori zuzendua: Lizarrako gazteak.
Helburuak: gazteei astialdiko hezkuntzaren arloko oinarriko ikasgai batzuk ematea. Boluntario arduratsuek prestatzea. Balio etikoak lantzea astialdian. Bakoitzaren jarrerak eta gaitasunak garatzea. Parte-hartzaileei baliabideak ematea hurrekin lan egiteko. Lizarran gazteen parte-hartzea bultzatzea.
Edukia/Programa: astialdian hezteko. Monitorearen profila. Boluntario izateko motibazioa. Talde dinamikak. Garapenerako hezkuntza. Elkartegintza. Jokoak eta lantegiak. Programazioaren hastapenak. Sentsibilizazioa naturarekin eta ingurunearekin.
Data: azaroko larunbatetan emanen da ikastaroa: 6-7, 20 eta 26-27.
Ordutegia: goiz eta arratsalde.
Tokia: Lizarrako Gazteriaren Etxea.
Ikasle kop.: gutxienez 15 eta gehienez 20.

GAZTE ELKARTEEN KUDEAKETA, IRUÑEKO UDALAREKIN

Nork emana: "Albero & Hermoso de Mendoza" abokatuen bulegoa.
Nori zuzendua: gazteriaren arloan diharduten profesionalak. Gazteentzako informazio sarea, gazteriaren arloko teknikariak, gazte elkarteak eta interesa duten gazteak.
Helburuak: gazte elkarteak sortzeko eman behar diren urratsak ezagutzea, gazteek gizartearen parte har dezaten bultzatzeko aipatu elkarte bidez. Gazte elkarte zentzuzko alde (dokumentuak, erregistroak, kontabilitatea, zergak) ongi kudeatzeko prestakuntza ematea.
Edukia/Programa: gazteen parte-hartzea eta elkartegintza: gazte elkarteak sortzeko eman behar diren urratsak. Gazte elkarte funtzionamendua. Gazte elkarte betebeharrak alde hauetatik: dokumentuak, erregistroak, kontabilitatea, zergak. Gazte elkarte finantzazioa.
Data: 2011ko urriaren 22a, ostirala.
Ordutegia: 09:30-14:00 eta 16:00-20:00
Tokia: Gazteriaren Etxea
Zangoza kalea, 30. Iruña.
Ikasle kop.: 15.

2010eko GAZTERIAREN SARIAK

Nafarroako Gazteriaren Institutuak (NGI) Gazteriaren 2010eko Sariak emateko jarduerak aurkezteko epea ireki du. Gaurtik aurrera eta datorren urriko 29a arte izangaiak aurkez daitezke NGIko erregistroan (Yanguas y Miranda, 27) edo inj@navarra.es helbidera igorri. Proposamenaren ereduak NGIko web orriaren helbidera igorri, www.juventud.navarra.es Hautagaitza guztiak behar bezala justifikatu dira eta egoki jotzen den dokumentazioa erantsiko zaie.

Zer dira sariak?
Sari gisa irudi bat ematen da, errekonozimendu soziala adierazten duena, diploma eta diru-laguntza, Nafarroako Gazteriaren Institututoko zerbitzuak edo produktuak, 600 eurokoa lagun bakararentzat bada eta 900 eurokoa taldearentzat bada. Saria merezi izateko arrazoiak indartzeko jardueretan erabiliko da diru hori.

Aurten sari hauek eman daitezke:
Gaztearen Saria. Nafarroako gazte bati ematen zaio, edo biri. 14 eta 30 urte bitartekoa(k) izan behar du(ite). Sariarekin ibilbide pertsonala goraiatu nahi da, gizarte modernoan balioekin lotura zuzena duena (elkartasuna, eginahala, lana, tolerantzia, kulturartekotasuna, nazioartean mugitzea, bizimodu osasuntsua, etab.), eta gazte nafarren erreferentziakoa dena.

Parte-hartze Sozialaren Saria. Nabarmentzekoa den eta legezko inskripzioa Nafarroan duen talde edo elkarte bat saritu nahi da. Honakoak hartuko dira aintzat: taldea gazteek parte hartzeko bide izatea; taldeak jardura kopuru handian esku hartzea; eta taldeak eraginkortasunez bermatzea gazteek parte hartzen dutela Nafarroaren garapen politiko, sozial eta kulturalean.

Erakunde edo Entitatearentzako Saria. Nortasun juridikoaren jabe den eta helbidea Nafarroan duen erakunde, entitate publiko edo pribatu edo toki entitate bati ematen zaio. Saria merezi izateko, nabarmentzeko moduko lana egin behar du gazteen alde, haien parte-hartze soziala bultzatu, eta gazteen autonomia eta bizi kalitatea hobetzen saiatu. Betiere, gazte nafarrek izan behar dute ekimenen helburu edo haietarako lehentasuna eduki.

Aipamen berezia. Nafarroaren Gazteriaren Institutuak zilegi izanen du, nahi izatera, aipamen bereziaren saria emateko, gazteriaren arloan izandako eragin nabarmenagatik. Sari gisa irudi bat ematen da, errekonozimendu soziala adierazten duena, diploma eta diru laguntza, 600 eurokoa lagun bakararentzat bada eta 900 eurokoa taldearentzat bada. Saria merezi izateko arrazoiak indartzeko jardueretan erabiliko da diru hori.

Nork egin dezake proposamena?
Adinez nagusiek, nor bere izenean edo legez eraturako entitate baten ordezkari moduan. Pertsona edo entitate bakoitzak hautagai bat proposatzen ahal du sari bakoitzerako. Izangai bera proposatzen ahal da bi saritarako. Proposamenak hori NGLaren web orriko (www.juventud.navarra.es) inprimakiarekin batera aurkeztuko da. Horie merezimenduen frogagiriak erantsiko zaizkie. Proposamena egiten duenak argi adierazi behar du nor den, eta betebeharrak bete. (Proposatutakoaren merezimenduak datuak emanez argudiatzen ahal dira, edo prentsa-ebakien bitartez, edo curriculum edo bestelakoak aurkeztuz).

Gazteriaren Sari buruzko ebazpena
Nafarroako Gazteriaren Institutuak izendatutako Batzorde Tekniko batek aztertuko du jasotako proposamenak sari bakoitzaren ezaugarri ongi egokitzen zaizkien, eta gehienez bost proposamen hautatuko ditu sari bakoitzerako. Bost horiek azken hautagai bezala geldituko dira, Aholku Batzordeak erabakia har dezan. Nafarroako Gazteriaren Institutuak urtero izendatuko ditu Aholku Batzordeko kideak, ebazpen baten bidez. Batzorde horrek eginen du azken proposamena Gazteriaren Sariak emateko.



JUAN eta Galde 2010eko 2. seihilekoa

Nafarroako gazteentzako Jardueren eskola • Prestakuntza Programa



2012 | ZUREKIN BAGOAZ AURRERA

